

**LAN HITZARMENeko MAHAIAREN BERRIAK 7. mahaia**

Joan den martxoaren 7an Gizarte Ekimenezko ikastetxeen lan hitzarmeneko negoziazioa-mahaia bildu zen berriro. Beste behin, biera berririk gabe maitu zen eta negoziazio kolektiboak zailtasuna handiak ditu aurrera egiteko.

Kristau Eskolak, erreklamazioen auzian langileak eta sindikatuak izaten ari garen egonarrria eskertu arren, ez zuen inolako neurririk hartu lan hizarmena – murriztutako lansariei dagokionez ezta irakasle ez den pertsonalgoari dagokionez ere, betetzeko. Behin eta berriz adierazten dute Jaurlaritzarekin negoziatzen jarraitzen dutela eta ordaindu baino lehen bide hori agortu nahi omen dute.

Aurkezturiko “ incidente de nulidad” delakoari buruzko bere iritzia eman zuen (onartu zuen ez duela Gorenaren epaia gerarazten) baita ez dozenteen %95ko ekiparazioaren epaiarren aurka aurkezturiko “recurso de aclaración” delakoari ere. Halaber, adierazi zuten auzi-prozesuaz emandako epaiari ere helegitea aurkeztuko diotela.

AICEk adierazi zuen egoera honek - indarrean dauden lan-sarien taulak betetzen ari diren arren- ezin duela luzaro iraun eta Jaurlaritzak bermatuko lukeen finantziazioa aintzat hartuko lukeen Lan hitzarmen berria sinatu beharko litzatekeela.

STEE-EILASek zaila ikusten du murrizketak irtenbide politikoa izatea epe laburrera. Patronal erkundeek negoziatzeko denbora gehiago eskatzen ari direnez gero ultraaktibatetaren inguruko urratsen bat eskatu genien, batez ere Kristau eskolari, STEE-EILASek bere hitza eman zuen hurrengo bilerarako konpromiso zehatzak emateko.

Hurrengo bilera, apirilaren 12an izango da eta lan hitzarmeneko artikulu batzuen inguruko proposamenak aztertuko dira. Aurrekontuak itxita egotea eta Patronalek proposamen zehatzak eramatea espero dugu . Unean uneko informazioa emango dizuegu.

***Hezkuntzan STEE-EILAS***

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Deskalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	948212355	948229790	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>